



Dotore janzteko aholkuak

Harrotasunez, ez harrokeriaz

Hemen da #dotorejantzi, baserritarrez janztera animatu, zuretzako jantziarik egokiena aukeratu eta harro sentitu eta gozatzeko lagunduko dizun ekimena.

dotorejantzi.geroaxular.eus



**GERO AXULAR
DANTZA TALDEA**

Gerrikoa

- Gerrikoa jantzeko, eskatu laguntza eta jarri estu. Gorde muturra goitik behera.



Abarkak


- Abarkak eta abarketak korapilo batez lotzen dira. Lazo bat eginez gero, erraz askatuko dira.
- Errazago egingo zaizu abarkak edo abarketak orkatilaren inguruan lotzea. Horrela, ez dira lokarriak eroriko, eta erosoago egongo zara.
- Abarkak zangoan gora lotu nahi badituzu, gomendatzen dizugu soilik hiru gurutze egitea lokarriekin, bikiak libre utzita eta lokarriak belunaren azpian lotuta.
- Eurria egiten badu, erabili gomazko abarkak edo lokarridun zapata klasikoa. Ez erabili mendiko botarik, kiroletako zapatarik ez oinetako modernorik.



Harrotasunez, ez harrokeriaz

Zapia

- Buruko zapia hobeto geratuko zaizu ile pixka bat zuten baduzu agerian.
- Ez baduzu buruko zapirik jarriko, egin moño klasiko bat. Ez erabili moño deseginik ez mototsik, eta ez eraman ilea askatuta.
- Buruko zapia erori ez dakizun, gure bideoa ikustea gomendatzen dizugu.
dotorejantzi.geroaxular.eus



Gonak eta mantala

- Gonak luzeak dira, alegia, ia orkatiletaraino iristen dira, eta lasaiera handia dute. Lasaiera gona jarriko duen pertsonaren altueraren bikoitza izango da, gutxienez.
- Mantalaren zabalera ere handia izango da, eta gonaren aurrealde osoa hartzeko modukoa. Luzerari dagokionez, beriz, gona adina edo pixka bat laburragoa izango da. Ez erabili tela gutxi, hobeto geratuko baitzaizu.
- Gonazpikoa, beti, gona baino motzagoa da; ez da agerian utzi behar gona-gorontzaren parpailak eta ez du kolorezko lasorik. Gonazpiko parpailduna erabiltzen baduzu, politagoa geldituko da gona.
- Erabili ehun naturalak, gure arbasoek egiten zuten bezala (haria, kotoia, oihala...).



Gerritik gorakoak

- Txanbra erabiltzea erabakitzen baduzu –gerrian estutzen den blusa zabala–, ez jarri gerruntzerik.
- Atorra eta gerruntzea erabili nahi badituzu, atorrak ez du leporik, eta botoi bakar batez lotzen da. Atorra emakumeek erabiltzen zuten kotoizko barruko jantzia da. Gonaren barrutik eta gerruntzearen azpitik jarri behar da.
- Gerruntzea ez da txalekoa; gorputzera estutzen da. Gonaren gainetik jarri behar da.
- Hotzetik babesteko, oihalezko gona bat jar dezakezu gonazpiko eta gonaren artean. Eta, atorra eta gerruntzea erabiliz gero, jipoi estu bat jantz dezakezu.
- Mutilek zein neskek oihalezko jakak erabil ditzakete, baita artilezko kaikuak ere.
- Emakumeek mantu handiak erabili ohi zituzten gorputz osoa estaltzeko.



Urketariak

Urketariaren bidez bere garaian etxeoandreek eta neskameek eskuarki egin ohi zuten zeregin bat ekarri nahi da gogora, eta, era berean, emakumeek gizartean zituzten eginkizunak balioetsi. Irudi honek garrantzi berezia hartu zuen 1981ean Kresala Elkartek emakumeei danborradan parte hartzeko aukera zabaltea erabaki zuenean. Horretarako, soldadu eta sukaldarien konpainiak ez ezik, urketarien talde bat ere sartu zuten danborradaren desfilean.

Izan ere, iturrien inguruan okin edo sukaldarientzat ur bila joandako mutilez eta soldaduez gain, beti biltzen ziran ur bila joandako etxeoandree eta neskameak ere, urketariak, alegia. Hori horrela, ikuspegi historiko eta etnografikotik oso koherente ikusi zena figura horren bidez zabaltea danborradaren osaera.

Izenak besterik ulertarazi dezakeen arren, urketarientzat aukeratu zuten jantzia ez dago, izatez, lanbide edo ofizio zehatz bati lotuta. Aitzitik, jantzi hori oinarritu zen XIX. mendean Donostiako emakumeek eguneroko zereginetarako erabiltzen zuten janzkeran. Hori dela eta, urketarien jantziak aukera asko onartzen ditu. Dena den, baditu oinarritzko ezaugarri batzuk.

Garai hartako emakumeen eguneroko jantziaren ezaugarri nagusiak hauek ziren: gona luzeak, mantala handiak, garaiko oinetakoak eta zapia buruan. Hotzetik babesteko, beriz, ehunezko jaka, jipoia nahiz mantu handia erabiltzen zuten. Edonola ere, urketaria jantzia baserritararen antzekoa zen bere eitean. Hori horrela, gida honetan aurrez emandako jarraibideak kontuan hartzekoak lirateke, halaber, urketari jantzia diseinatzeko eta jantzeko orduan ere.

Informazio gehiago nahi izanez gero, bisitatu gure webgunea: dotorejantzi.geroaxular.eus.



**GERO AXULAR
DANTZA TALDEA**